

CIDETEC ikerketa aplikatuko erakunde pribatua da, 1997an sortua. Balio erantsi handia duten eta ekonomikoki bideragarriak diren soluzio teknologikoak garatzen eta martxan jartzen ditu enpresetan, eta, horretarako, jakintza teknologikoa erakartzen, sortzen eta transferitzen du. Azken helburua da bere bezeroen lehiakortasuna hobetzea eta gure inguruko enpresa-sarea hobetzeko prozesuan aktiboki parte hartzea.

Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkean dago CIDETEC, Donostian, eta nazioartean erreferentziakoak diren hiru zentro teknologiko biltzen ditu:

## ➤ Energia-metaketa

CIDETEC Energy Storage zentro espezialista da baterien teknologia berriak sortzen eta haiek industriara transferitzen. Zentroak produktu eta prozesu osoak garatzeko ahalmena du, eta zerbitzu hauek eskaintzen ditu: materialak baliozkotzea, fabrikazio pilotua, paketeen ingeniarietza eta baterien saiakuntza.

## ➤ Gainazalen ingeniarietza

CIDETEC Surface Engineering erreferentziako zentro bat da gainazalen ingeniarietan, eta teknologia horien garapenean espezializatutako berrikuntza-polo baten ardatza ere bai; izan ere, gainazalen balio-kate osoko irtenbideak eskaintzen dizkie automobilgintzaren sektoreari, sektore aeroespazialari eta energia-sorkuntzakoari, besteak beste.

## ➤ Nanomedikuntza

CIDETEC Nanomedicine biomedikuntzaren arlorako material berritzaileak garatzen dituen zentro bat da. Teknologia garatzen jarduten du eta, une honetan, hiru patente-familia ditu balioztatze-fasean. Industriarekin duen zuzeneko harremana baliatuz, teknologia transferitu dezake eta, hala, denbora gutxiago behar da merkatura iristeko.

Zentro horietako bakoitzak bere egoitza eta instalazioak ditu, goi-mailako ekipamenduz hornituak.

CIDETECen IKUSPEGIA da eragile garrantzitsu bihurtzea gure industriaren eraldaketan, eta teknologia nahi du eredu ekonomikoaren oinarrian, hazkundera eta ongizatea sortzeko palanka gisa.

Helburu hori lortzeko, hauek dira gure oinarriak:

- Lantalde kohesionatua, ibilbide profesionalean etengabe aurrera egiten duena, eta kualifikazio, espezializazio eta inplikazio maila handia duena, bai eta gogobetetze-maila handia ere.
- Ikuspegia, pentsamendu estrategikoa eta emaitzetara bideratutako estrategia dituen zuzendaritza-taldea.
- Konpromisoa dugu gure gaur egungo eta etorkizuneko bezeroekin nahiz gure ingurunearekin, irtenbide teknologiko onenak modu eraginkorrean eskaintzeko, betiere haien eskakizunak eta itxaropenak kontuan izanda.
- Bezeroaren zerbitzura jartzeko zaletasuna. Sinetsita gaude CIDETEC bera ez dela helburua, eta haren izateko arrazoia dela enpresei, eta oro har gizaritari, benetako balioa eskaintzea.
- Erronka berriei estrategikoki heltzeko gaitasuna duten pertsonak.
- Lankidetzarako prestutasuna, elkarlanaren bidez balioa sortzeko eta gure xedea lortzen laguntzeko gai diren entitateekin.
- Bikaintasuna gure lanean eta gure emaitzen kalitatean (emaitzetara bideratuta egotea).
- Etengabeko hobekuntza, berrikuntza eta aldaketetara egokitzeko gaitasuna.

- CIDETECek ingurumenaren errespetua bermatzen du, kutsadura prebenituz eta bere jardueratik eratorritako ingurumen-inpaktuak kontrolatzeko eta murrizteko neurriak ezarriz.
- Gure jarduerari aplikagarriak diren baldintzak zorrotz betetzea (UNE 166002, UNE-EN ISO 9001, UNE-EN ISO/IEC 17025, ISO 14001, ISO 45001 eta UNE-EN ISO/IEC 27001 arauak barne, erreferentziatzen hartuta).
- Inpartzialtasun eta konfidentzialtasuna aktibitate guztietan. Gure profesionalak lortutako emaitzak aldatu litzakeen presiorik gabe gauzatzen dituzte beren eginbeharrak, analisi funtzioetarako beharrezkoa den informazio guztia modu egokian kudeatzea bermatuz.

CIDETECek konpromisoa hartzen du informazioaren segurtasuna bermatzeko, datuen babesa bermatuz eta informazioaren konfidentzialtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna babesteko diseinatutako politikak eta prozedurak ezarriz.

Erakundearen posizionamenduaren erakusgarri, dokumentu hau onartzen dut kudeaketa-politika hau eta politika horrek adierazten duena babesten ditudala frogatzeko.

**Javier Rodriguez**

Zuzendari Nagusia